

III. ERANSKINA

Interes Gatazkarik Ezaren Aitorpenerako Eredua (IGEA)

ESPEDIENTEA	
KONTRATUA/DIRULAGUNTZA	

Goian aipatutako kontratazio/dirulaguntzaren prozeduran inpartzialtasuna bermatzeko, neuk, behean sinatzen dudan edo dugunok (aurreratzean “dudan” 1. pertsonan), espedientea prestatzeko eta izapidetzeko prozesuan parte hartzen dudan aldetik, honako hau adierazten dut:

Lehenengoa. Honako informazio hauen berri dudala:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Araudiaren (EBren finantza-araudia) 61.3 artikulua «Interes-gatazka» honako hau ezartzen du: «interes-gatazka egongo da eginkizunen egikaritzea inpartziala eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia, afektibitatea, kidesasun politikoa edo nazionala, interes ekonomikoa edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoirengatik.»

2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua «Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa» helburua da lehia ez desitxuratzea, prozeduraren gardentasuna bermatzea eta hautagai eta lizitatuak guztiei tratu-berdintasuna bermatzea.

3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua «Parte ez hartzea» ezartzen duenez, prozeduran ez dute esku hartu behar «hurrengo paragrafoan adierazitako inguruabarretako batzuk betetzen dituzten administrazioetako agintariek eta langileek», hauek izanik:

a) Kasuan kasuko gaian edo beste batean baldin eta gai horren ebazpenak eragina izan badezake interes pertsonala izatea; sozietate edo erakunde interesdunen bateko administratzailea izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta laugarren mailako odolkidetasun-ahaidetasuna edo bigarren mailako ezkontza-ahaidetasuna izatea interesdunetako edozeinekin, erakunde edo sozietate interesdunen administratzaileekin eta prozeduran parte hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin, bai eta bulego profesionala partekatzea edo horiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkari edo mandaturako.

c) Aurreko atalean aipatutako pertsonaren batekin adiskidetasun estua edo ageriko etsaitasuna izatea.

d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartu izana.

e) Zerbitzu-harremana izatea gaian zuzenean interesa duen pertsona fisiko edo juridikoarekin, edo azken bi urteetan hari edozein motatako zerbitzu profesionalak eman izana, edozein egoera edo tokitan».

Bigarrena. Ez nagoela EBren Finantza Araudiaren 61.3 artikuluan adierazitako interes-gatazkatzat jo daitekeen ezein egoeratan, eta ez nagoela lizitazio/emakida prozedurari eragin diezaiokeen Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluko abstentzio-kausarik.

Hirugarrena. Konpromisoa hartzen dudala kontratazio-organoari/ebaluazio-batzordeari jakinarazteko, luzamendurik gabe, interes-gatazkako edozein egoera edo abstentzio-kausa, egoera hori sortzen duena edo eragin dezakeena.

Laugarrena. Badakidala interes-gatazkarik ezaren adierazpena faltsua dela frogatzen bada, aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen diziplina-ondorioak, ondorio administratiboak eta judizialak ekarriko dituela.

SINADURA ETA DATA	
IZEN-ABIZENAK	
NAN	